



EBALUAZIO-ERRUBRIKA
PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Barra-grafikoak egitea (MAT 1.2 irizpidea, NNZZ 3.2 irizpidea)	Emandako datuak ondo etiketatuta dauden grafiko zuzen eta argiekin irudikatzen ditu	Datuak era egokian irudikatzen ditu, baina etiketetan edo eskaletan akats txikiak daude.	Grafikoek akats garrantzitsuak dituzte eskala edo datuetan.	Ez dira grafiko ulergarriak edo ez da grafikorik egin.
Ehunekoen kalkulua (MAT 6.1 irizpidea)	Ehunekoen kalkulu guztiak zuzenak dira.	Ehunekoen kalkulu batean akatsa dago.	Ehunekoen kalkulu guztietan akatsak daude.	Ez da lortu erreferentziazko balioekin alderatzea ere.
Ingurumen-inpaktuaren eta osasunaren azterketa (NNZZ 6.1 irizpidea)	Zehatz-mehatz azaldu eta laburtu da kutsadura-iturriak zeintzuk diren eta horiek ingurumenean edo/eta osasunean dituzten ondorioak.	Kutsadura-iturriak eta kutsatzaileen ondorioak azaldu dira, baina sakontasun faltarekin.	Kutsatzaileekin lotura argirik ez duten iturri eta efektu batzuk aipatzen ditu.	Ez da azaldu kutsatzaileek nola eragiten dieten ingurumenari edo/eta osasunari, ezta haien jatorria ere.
Jariakortasuna (EUS 3.1 irizpidea)	Narrazioa argia eta arina da, intonazio eta erritmo egokiekin. Erregistro formalaren erabilera eraginkorra.	Narrazioa, oro har, argia da, erritmo edo intonazio arazo txikiekin. Erregistro egokia.	Narrazioak etenaldi luzeak ditu, edo erritmoa azkarregia da, edo ahoskera ez da oso argia.	Narrazioa ulertzea zaila da, erritmo, intonazio edo argitasun arazoak direla eta.